

BIZKAIKO HIRU ES KOLA TXIKIEN PROIEKTUA:

Arrankudiaga, Areatza eta Zeberrioko eskolen artean urte batzuk dira proiektu komuna gauzatzen dela.

Proiektu hau gauzatzeak geletako metodologiak bateratzea dakar.

GURE METODOLOGIAREN ARDATZ NAGUSIAK:

- Ez dugu testu libururik. Umeekin proiektuak egiten dira.
- Proiektuak umeentzat interesgarriak izan behar dira: umeen interesetatik abiatuta.
- Umeek esaten digute zer ikasi nahi duten eta guk osotu egiten dugu.
- Arlo ezberdinetako ezaguerak behar izango dugu aukeratutako proiektu horretan sakontzeko.

**HIZKUNTZAK lagunduko du, INFORMAZIOA BILATU
IRAKURRI, ULERTU INTERPRETATU, BESTEEI
AZALTZEKO IDATZI, TESTUAK..**

Hizkuntza ezberdinetan egon daiteke informazioa edo idatzi beharra: **GAZTELERA, EUSKARA, INGELESA**
Baita ere **MATEMATIKAK**: atletismo pista egin nahi badugu **GEOMETRIA, NEURRIAK, ZIRKULUAREN LUZERA, PI...**

BALOREAN eta **SENTIMENDUAK**: olinpiadetan euren **ISPIRITUA,** **KONPETITIBITATEA;** **LURRA**
PLANETAREKIN NOLA ZAINDU, ERASOAK..

Umeen galderei, kezkei erantzutea izaten da helburua.

Horren ondorioz ziurtatu egiten da testuinguruari lotua egotea, funtzionalitatea izatea, zentzua izatea umeentzat.

Gelak polifonikoak dira:

- Umeek era ezberdin batean erantzuten diote planteatutako galderei, erronkei. Umeen aurreiritziak liratekeenak.
- Bakoitzak ideia bat dauka, mundua ulertzeko modu bat. Hipotesi ezberdinak.
- Ideia guztiek balore berdina dute. Batzuk ez dira besteak baino hobeagoak, ezta ere txarragoak.
- Polifonia balore bat da.
- Irakasleen erronka polifonia, ideia ezberdin horiekin nola lan egin izango da.

Gelakideen arteko elkarrizketak antolatu eta kudeatu. Ikas komunitatea eratu:

- Ikasteko modu bat.
- Umeen arteko interakzioak: Adin ezberdinetako umeak.
- Besteen iritziak ezagutzeko. Beste ikuspuntu batzuk ezagutzeko.
- Argudiatu egiten da, arrazoibideak ematen dira.
- Adostasunak lortzeko edota desadostasunarekin bizi ahal izateko.
- Komunitateko beste kideen iritziak entzun: gurasoak, jakitunak

Gelakideen ideiak publiko egin.

Gelakideen sentimendu eta emozioei tokia uztea, kontuan hartzea, presente egotea, kudeatzea.

ANTOLAKUNTZA:

Ardatz metodologikoak gauzatzeko:

- Hasieran egun batean ziklo guztiak. Koordinatzaile ezberdinekin.
 - Koordinatzaileak euren bilerak
- Gero zikloko bilerak egun ezberdinetan:
 - Ordutegi barruan, bi ordu jarraian
 - Koordinatzaile bakarra.

- **Ziklotan zer egiteko?**
 - Gaia aukeratu, umeen iritziak entzun, proiektua gorpuztu.
 - Gelarako proposamenak prestatu.
 - Proposamenen emaitzak aztertu. Umeen ideiak aztertu, horrela nola pentsatzen duten jakingo dugu, zeintzuk diren euren hipotesiak dakiten, ezagutzen duten, ulertzen duten. Horren ondorioz interbentzioa eta proposamen didaktikoak antolatuko ditugulako.
 - Proposamen berriak egin
 - Emaitzak berriro aztertu...
 - Proposamenen egokitasuna baloratu.
 - Ebaluazioa diseinatu: proposamenena, ikasleen prozesuarena.

- **Zikloetako antolakuntzak erraztu egiten du:**
 - Bakarrik ez sentitzea
 - Irakasleen arteko trukaketak egotea: errekurtsio trukaketa, ideia trukaketa...

- **Metodologia:**

Praktikaren hausnarketa izango da printzipio nagusia. Gelan gertatzen dena behin eta berriro aztertu egingo da, bai umeei esaten eta egiten dutena, bai irakaslearen interbentzioa, eta bere eragina gelako funtzionamendu eta ekintzetan.
- Eskola bakoitzean hilean behin zikloetako lanari buruz hitz egin, eskolan behar diren neurriak hartzeko.

ARAZOAK/ OZTOPOAK:

- Irakasleen egonkortasun falta. Behin eta berriro hasi egin behar
- Arduradun batentzat orduak egotea.
- Irakasleen lan hipotesiak aldatzea.